

ZEAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

143n. Zenbakia Garagarrilia (Uztaila)

Dagonilla

1990



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



JOSE ANTONIO AGIRRE LEKUBE, LENENGO LENDAKARIA
EUZKADI GUZTIAN ZEAR ABERRIAREN ALDE
EUROPA'RA BEGIRATZEAN AURRELARI TA EREDU

ARAZOAK

ARGIA AMATATEN DANEAN ~

BATIKANO'KO II BATZAR NAGUSIA antolatzen egoan abade eta praille moltso eder bat. Euren artean egozan, salmoak abestea ain maite daben, beneditarrak. Salmoetan topaten dabe euren bizitzarako argia eta Jainkoarekiko indarra.

Bededitarrekin batera dominikarrak ere bai. Auek, Tomas Akinoko Deunaren jarraitzalleak diranez, arra-zoia dabe elburu eta jomuga nagusia; burua erabiltzen dozak onek, mutillak.

Euren artean ba egozan Loiola'ko Iñigo'ren semeak ere. Iñigo'k koruko salmo-kantak kendu eutsezan bere semei, eguneroko lanetan askatasun geiago izan dezaten lagun-urkoaren aide lana egiteko: ikastolak jaso mailla guzteitakoak, gaixotegiak eraiki eta abar.

Billera artan, bat-batean, argia amatau zan eta guztiak gelditu ziran illunetan. Beneditarrak berealako batean asi ziran kantari: "Jauna dut argi...". Argia gora eta argia bera... Dominikarrek, berriz, kandela bat biztu

eta asi zirian argiaren goraltzak egiten eta errotik bere sortzea aztertzen: nundik norakoa dan, zer indar-mota dituen... Eztabaidan ekin eben. Iñigo'ren seme batek, bien bitartean, txiskeroa biztu eta "plomo"aren billa asi zan erretako alanbratxoa aldatzeko. Berri batekin aldatu ebanean, orra berriro argiak billera ura argitu.

Kantuan berriro beneditarrak, Jainkoari argiagaitik eskerrak emanaz... Arrazoibidetik dominikarrek argiaren ederra aztertuz... Loiolatarrak, bien bitartean eta bada ezbadan be, "plomoa"ren ondoan beste alanbretxo bat ipiñi eban urrengorako.

Otoitz-bitartean, mailluakin emon.

Edo, beneditarrek eurok beuren biziaren zuzenbiderako daukaten ikur au: ORA ET LABORA. Biak batera.

Baiña, Oto maltzurak, beneditarrekin praille-mutil egoala, onela euskaratu eban bere kolporako: JAN DA LO.

ZUGAITZ EGUNEAN

Zugaitz-Egunean zelai, baso, mendietara eskola-neska-mutil gaztetxo aunitz asko joan izan dira poz-pozik, guztiz ederto, bakoitzak zugaitzondo jakin bat landatzera.

Sartutako aritz, intxaur, lizar, gaztain, pago... bijar-etzi aundi izango diranak eder, itzaipe atsegin bat eskeñiz txorientzako orriak aizeaz txutxumutxu... iZenbat bider!

Begiko jakuzan erritar zugaitz oparo orreik, zuztraitu bediz sakon gure lurretan, nai genduken emoitz-aldi luze baterako.

Zaindu daiguzan ba zugatzok, gogoz, benetan, txoriak be egoak zabal, askatasunean txirulirutu daitezcan txintots alaietan.

(1990)

(j) MUNIATEGI-TAR Sabin

AGIRRE LENDAKARIA ETA EUROPA

Ez da nire elburua lan onetan, arazo aztergarri oneri begiratze sakona egitea. Gure Agirre-ren jarraitzaile ta maitale sutsuren batek egingo dau azter-lanen bat idazpuru onek gogoratzen dauan arazoari buruz egin bear dan billaketea egiteko.

Baiña nok ez daki azal-azaletik beintzat Agirre-ren pentsabidea zein zan gai oneri buruz? Geiago barik neure elburua noa ba.

IGARLE

Laterrien arrokeria ta "txobinismoa" nagusi ziran eta, txarrago zana, nazitarren okerbidea nagusitzen joan zan aldi areitan eta geroago, Europa'ri buruz, igarle lez berba egin eban Agirre'k.

Eta ez igarlea zalako. Sarritan inguruak berak bultzatzen gaitu pentsaera batera eta pentsaera on izaten da etorkizuna ikustera bultzatzen gaituana.

Jaiotzaz eta eziketaz betik datorren errigintza human eukan gizon argi batek, zelan ez eban ikusiko nazitarren jokabideak Europa'n egiten eban triskantzea? Edo laterri aundiak aberriai ezarten dauksen zapalkuntza endailtzaillea? Eta on ikusi ezkeror nor ez izan igarle, zuzentasunak egunen baten argi egingo dauala uste izateko?

Agirre'k on argi ikusi eta argi agertu eban: Europa-ren etorkizuna ez da laterrien Europa, aberrien Europa baiño.

Oraindiño be asko dira berak ikusi eban on ikusten ez dabenak, baiña Agirre'k ikusi eta esan egin eban. Igarle izan zan.

ZERTAN IGARLE?

Gure egoaldean dagoan laterrian zabal ibilli zan aldi lotsagarri areitan euren laterria BAT, AUNDIA, ASKEA

izan bearrekoa zala. Baiña bat izateko besteen nortasuna zapalduta, aundia izateko besteena norberaganduta eta askea izateko besteen askatasuna kenduta.

Eta igarleen antzera egiten eben berba "aberria (orrelan esaten eutsoen eurak) mundu zabalean egiteko dan zeregiñerako batasuna" zala esanez. Baiña ez dira igarle agertu. Gaur Europa'n eta munduan benetako aberrien nortasuna artu bear dala kontuan ez dau iñok ukatzen. Eta aberria zer dan ba- dakigu aberrietan bizi garanak eta aberria maite dogunak. Aberria eta laterria ez dira gauza bat eta areik bat lez artzen eben. Or dago euren guzurrezko igarkiaren oiña.

Agirre abertzalea zan eta abertzaletasuna errigintzan benetako oiñarri bakarra da.

ZERGAITIK IGARLE?

Errez ulertzen da esan doguna ulertu ezkeror, Agirre zergaitik izan zan igarle, baiña oraindiño beste errazoi aundi bat dago.

Agirre burubide on artu ebalako aurrean erabilia izan zan eta ortik etorri jakozan samintasanak eta nekeak bultz egin eutsoen berba egiteko eta ekintzaz jokatzeko. Izan be zuzentasunaren aide jokatzeko gogo biziago izaten dau beti, zapalduta dagoanak, bere erria zapalduta ikusten dauanak. Guda zuzena egin eta galdu: dauanak errazoirik sakonenak daukaz zuzentasuna non dagoan ikusteko. Ez ainbeste guda orretan irabazle urte-ten dauanak.

Sarritan galtzeak ibazi geiago ekarten dau irabazteak baiño, bide zuzenetik ibilli ezkeror.

Aberrien Europa! Noiz izango ete da gure Europa? Antxiñako ezaugarria da Euskalerrria. Oraintsu agertu dira Estonia, Lituania ta...

NON DAGOZ...?

Orain urte.bete bat gitxi gora-beera, gure aldizkari onetan idazlan bat argitaratu neban, bizkaiereari buruz eusko erakundeek darabilen jokabide burubakoa salatuz, baita era berean bizkaitarrak zirikatuz euren euskeraren aide.

Urtebetea igaro ta gero, arrakasta gitxi lortu dodala esan bearrean nozue. Gure erri-erakundeek betiko bidetik darraie, ilteko zorian datzan Bizkai'ko euskerearen egoera larriari jaramon egiteke.

Areik esango dautsuee, bai orixe...! gure lurralde onetako euskerearen ondapena ez dabela gura, beste lurraldetako euskerak bizi izateko aña eskubideak badi-tuala, eta eurok errubakoak dirala mintzaira-ilketa onetan. Azalutsok...!

Aztertzen ba'dogu gure erakundeek bizkaierearen aide egin dabena, unetxu bat baiño besterik ez dogu bear izango, ezer egin ez dabelako.

Eta geurok bizkaitarrok, zer egin dogu gure errialdeko euskerearen aide...?

Gurekin joango ez ba'litzan, gure ama euskerearen beerakada ilgarria zirkin egin barik begiztatu, baita batzuk pozik be, "El batua" salbatzailletzat artu. Iñuzenteok...!

Dana-dala, bearrezkotzat daukat barriro be jokabide zoro on salatzea, eta gure betiko bidetik jarraitu azkeneraño, edo osabide bat jaritsi arteraño.

Gaur beste aide bat agirian ipiñi gura dot, eta auxe alegia: euskerea jasaten ari dan zitalkeria.

Badirudi, gure asabek laga euskuen izkuntz eder eta aberatsak, ez dauala iñongo gaitasunik gauzak adierazoteko, eta kinka larri orretatik atarateko, guztitariko erde-

rakadak erabilli bear dirala, eta onezaz gaiñera (au bai larria!) erdal joskera utsa erabilli bear dogula.

Kaleko iragarkiak, aldizkariak darabilen idazkerea, ikustirradi ta irratietan emoten dauskuena, badirudi euskerea ezagutzen ez dabenen ondorioa dala.

Olan jarraitzekotan, erdere bestea "dialekto" batz aberastuko da.

Izan be, olako txarkeriak ulertzeko, erdere ondo bai ondo ezagutu bear da.

Au dana negargarria ez ba'litz, askotan norberaren barre-gurea sortzen dala esango neuke.

*

Eta on dana egiztatzean, nire buruari auxe itauntzen dautsat: non dagoz...? Non dagoz euskereaz jabetu diranak ainbeste astakeriri aurre ez egiteko...?

Non dagoz "El batua" "H" ta guzti asmatu ta indarkatu, eta lengo idazkera jatorra ta erraza ezereztu dabena (izango ete Arana Goiri'k sortu ebalako?) oraingo burubagekeriaren aurrean isillik egoteko...?

Zailla da benetan asmatzea, gure izkuntzaren gaurko egoereari orren ardurabako erantzun dagioela.

On izango litzakigu, euskereaz jabetu diran orreik, euren gaindegietatik jatsi daitezala, eta erri-euskerea aintzakotzat arturik, euren betekizuna da-ta, gure izkuntzak jasaten dauan zitalkeriari esi bat ipiñi dagioela.

Euron betekizuna da, eta olan egiten ez ba'dabe erudunak izango dira, eta olakoai egunen baten dago-kien erantzukizuna eskatuko yake.

ZUBIRI'tar IÑAKI



NON ITZITEN ZAITUE, BIZKAI'KO EUZKERA MAITE ORI?

Urte onetako Loraila'ren lenengo egunetarikoa bat izan zan. Azpaldiko adizkide bat il zala jakin nebanean, Bilbo inguruetakoa erri baten eta bere alde egin ziren eleizkizunetara joatea arabaki neban.

Ia beti jazoten dan lez, an be, ainbat lagunzarrekaz aurkitu nintzan eta barriketa batzuk egin ondoren Meza-Santua entzutera Eleizan sartu giñan. Geienetan, olako Done-egintzatara joaten garanean, illaren senditarrak ain atsekabetuta ikusirik, gu be, apur bat baño ezpada be, samindu egiten gara eta, an be, zelan ez, orixe jazo jakun. Laukiz'tar nire adizkide zintzo dan bat izan neban laguntzat eleiz barruan eta arin poztu ziren gure biotzak, Mesa-emolleak esaten ebana entzutean eta, batez be, ain Bizkai'ko euzkalki eder, garbi eta ulerko-rean mintzatzan zala entzun ondoren. Mezea amaitu ondoren, eleizpera urten eta, antxe, adizkide taldetxu batez barriketari gongozala, esandako Masa-emollea, gure ondo-ondotik igaro zan.

* * *

Juzturi bat baño ariñago beraganatu giñan eta biotz barren-barrenetik zoriondu genduan, ain Euzkera ederrean berba egin ebalako.

Gu, egia esan, ez gara besterik euzkaldun apal edo umil batzuk baño, baña lazter konturatzen gara, gure inguruetan dabillenagaz eta zuri danari, zuri eta baltz danari, baltz deitzen ikasi dogu. Ez dogu aiñ errez, "ugazabak" diñola ta, bai esango, EZ esan bear dala uste dogunean. Eta, gure uztez, Bizkaia'n BIZKAI'KO EUZKERA EGIN BEAR DOGULA DIÑO GUNEAN, orixe dala biderik egokiena, ziur gagozela-ko, diñogu.

Euzkera zaindu eta aurrera atarateko ERRIAK, BERAK, EGITEN DAUEN IZKUNTZA ULERKOR ETA ERREZA EGIN BEAR DOGU. Nik esan bearrik ez dago, ba, Euzkera maite dauen edozeiñek, itsu edo gor jarraitu gura daben batzuk izan ezik, argi ikusten dau, ORTXE, abade ta lekaide eliz-gizonen artean dagozela, Euzkera zaindari eta zabaltzallerik zintzo eta ziurren geienak. Zori onez, ba-dogu ondiño Bizkaia'n gure euzkalkia maite, landu eta zabaltzeko zintzo-zintzo diren abade asko eta, ZIUR EGON, eurek dira, zati edo aide aundienatariko baten, gure ele edo izkuntza maitearen jagole ta gaizkatzalleak.

* * *

Gomutatzen naz ondiño, euzkaldun aiñ ospetsu eta jakintzua zan KOLDO MITXELENA il-barri izan zanean, zelan JOSEBA ARREGI'K egin ebazan azalpen batzuen artean, auxe esan ebala: "ABANDERADO EN LA PUESTA EN MARCHA DEL BATUA, KOLDO AVISO DE LOS POSIBLES PELIGROS QUE PUDIERA TENER LA LENGUA,

SI PERDIA EL CONTACTO CON SUS PROPIAS RAICES, LOS DIALECTOS".

Koldo'k on esan ba eban eta beste Ludi'ko izkuntzalari ospetsuenak, beste orren beste esaten ba dabe, zer egin dabe eta egiten jarraitzen dabe gure Euzko-politikari, gure Euzko-erakundeak eta Euzko-kulturari (JAKINTZA'N, esango neke nik) sartuta dabilten agintari eta irakasle jakintzuok?

* * *

Gure errian agintari on asko izan dogu eta doguz oraingo aldietan be eta emen garanen sentzundun biztanle guztien artean, ez litzake aiñ errez izango, egin diren gauzak txarto dagozela baieztuko leukenik, ba, nire uztez, ainbat gauza egin da, eta danak ondo-ondo egin ez padira be, ondo dagozenak txalotu eta goratu egin bear dauz gizon zuzen edo deduzko dan edozeiñek.

Beste aide batetik, ba doguz gure errian, zori txarrez, bertako direnak eta atzerritik etorri jakuzenen artean be, ainbat amurrutuak diren arerioak. Orrek iñoz be ez dautzue esango, guk gauza onik egiten dogula.

Ba dagoz zorionez, kanpotik etorritakoen artean mordo andiak be, Euzkadi'ren aide zintzo jokatzan dabenak.

Euzkadi'n, zergak, emen bizi garen guztien lepoetara etorren jakuz, baña bide orreitatik batzen diren dirutzak, zati andi baten beintzat, ba-dakigu norako bideak artzen dabezan.

Sarritan irakurten doguz DEIA'n "Cartas al Director" atalean argitaratu eta ain atsegingarri izaten diren eskutitzak.

* * *

Esate baterako, joan dan Loraila'ren 10ganean., SORNE URIARTE URIARTE'K. "Utz zaitez guztien ondasunak eroaten" idazburutzat arturik esan ebanana da, Euzkera dabillen bideko ondore lotzagarrizko bat.

Orrelako asko irakurten dogu azpaldian, baña ez dogu iñondik ikusten okerkeri orrek zuzentzeko borondate onik. **BA DABE GURE AGINTARIAK NON LAN EGIN ETA GARBITZEN ALEGINDU, TXOMIN-BEDARTZAKAZ ONDATUTA DAGOZEN GURE LURRALDERIK GEIENAK.**

Mitxelena eta Ludi guztiko izkuntzalaririk geien eta ospetsuenak, euzkalkien aide ba dagoz, nortuzk dira Bizkai'ko euzkerearen aurka dabilten buru gogor eta sasi-izkuntzalari eta euzkal-akademikoak?...

Itxartu zaiz euzkotarra... iñoan antziñako abesti batek.

Lan onak egiteko edo egiterakoan..., iñoz be ez dala berandu siñestu bear dogu. Eta geltoki edo egazkin-zelai baten, bultzia edo egazkiña artu bear ba'dogu, sasoiz joan bear gara.

Esandako orrek, egizat artu ezkerok..., ez dakit ba, berandu ibilliko ete garen. Dana dala, gure erriak eipatuko gaitu eta... lotsagarri izango da errudun izendatua izana.

KEPA

GARDE'TAR MARTZELINO

- **ABADE EUSKALZALEA**
- **EGIZALEA TA ZUZENA**
- **NAPARROA'REN MAITALE** GARTSUA

Aundikeriarik amestu gabe, erri xeearen serbitzuan bizi izan zena, goi-maillako kargurik gabe, omenaldirik artu gabe, apal eta ixillik joan zaigu. Esan baiño geiago egiten zuen apaiz saiatu ta ekintzaillleari, benetan zor genion goratarrea opa nai diot, eriotz ondorenean bederen, gaurko itz eta aitorpenen bidez. Jakingoagan beza atsedan.

* * *

Kazkatzulu'n jaio zen 1925'eko Urrillaren 2'an. Iruña'ko Apaizgaitegian burutu zituen eliz-ikasketak. Bere jaioterrian eman zuen bere Meza-berria'—au da, lenengo Meza— 1950'eko Uztaillaren 25'ean, bi apaiz ospetsuren babesean: Batetik, Aralar'en dan San Migel'ko apaiza, Ayerbe'tar Iñozentzio izan zuen aitautsi edo aitorde; eta bestetik Jesus Makin apaiz ezaguna zuen Mezatako izlari.

Bere apaiz-bizitzan izan zituen bizilekuak, bost aukerak dira, auetan jarri bai-zuten eliz-agintariek. Lenengo, Castillonuevo erri txikiko apaiz; urrena Uztarroz'en, gero Garde'n, bereala Jenebilla'n eta azkenean Ripodas'en beste bost-sei errietako arduraz ornituta. Amar urteren buruan, lau aldaketa; baiña ez goruntz jasotzeko, gero-ta areago baztertzeko baizik. Garai aietan -1950-1960 urteetan— euskaltzale agertzea naikoa zen nolabaiteko zigorpean gertatzeko.

Nafarroa'ko Unibersidadean goi-ikasketak asi zituen 1960-1970 bitartean. Goreneko aitorpenak lortu zituen lau urtez buruturiko ikasketa aietan. Argia, burutsua ta ikaszalea zenik ezin ukatu. Baiña... sor-berria zen Ikastola bati babesa ta laguntza eman bearra ikusi zuenean, bertan utzi zituen ikasketak, izen aundia emango zioten ikasketak.

* * *

Iru zutabe nagusi zituen bere bizitzan, iruak bere aitagandik artuak: Jainkoa, egia ta Euskalerrria. Iruekiko maitasunak eragin zion beti, iruekiko maitasunak erre du gazterik Martzelino'ren bizitza. Jainkoaganako maitasunak esan-erazten zion askotan: **"Ebanjelio-ak ez dit beññere uts eman, baiña gizakiek bai"**. Arrazoi zuen bete-betean.

Aitagandik ikasi zuen Euskalerrria ta euskera maitatzen. Orregatik ikasi zuen euskeraz berak bakarrik, laguntzarik gabe, eragozpen guztien artean, beste iñork ikasten ez zuen garaian. Eta euskalzaletasun ori ez diote barkatu, ez ezkerretik eta ez eskubitik, ez beetik eta ez goitik, eriotz ondorenean itzez goraiatu ba'dute ere. **"II eta gero, salda hero!"**

Sei illobei beintzat —beren gurasoek jakin ez arren— euskeraz ikasteko gogoia txertatu zien; baita ikasteko bideak erraztu ere. Ongi dakite gaur, bat-edo beste euskal-irakasle izate-

raño. Zenbat naparrek egin ote dute beste orrenbeste? Eta ori, orain ogei urte diralarik.

Arrigarria zen aitagandik arturiko egi-zaletasuna. **"Egiak askatuko zaituzte"**, Jesus'en itzak artu zituen bere bizitzako argi ta elburu. Egi ezagutu ta aitortu nairik aalegindu zenak, egi nai zuen bere inguruan. Orregatik, itxurakeriak eta gezurak sutu egiten zuten, eta aukerak zapalduta il da. Baiña egiaren Aitak argi egingo dio AN, eta emen ere...

Euskerazko **"Principe de Viana"** aldizkariaren arduradun izan zen 1973'ko Epailletik, 1983'an eragozpenez ito zioten arte. Urrena, 1984'ko Irailaren 1'etik asita, **"Nafar-Izkuntza"** orri onen arduradun eta erantzule izan da. Indarrik eta eza-guerarik zuen bitarte osoan iraun du lanean: Jorraillaren 27'an azken-orria burutu zuen eta iru egun geroago Gaixotegira eramantzen bear izan zuten. Loraillaren 6'an eman zuen azken-arnasa.

Adiskide ugari zituen Euskalerrri osoan barna. Karkatzulu'n egiñiko illeta-elizkizuna ta azken-agurra ditugu lekuko.

Nafarroa osotik ez-ezik, Araba, Gipuzkoa ta Bizkaia'tik ere agertu bai-giñeñ apaiz euskaltzalea —il ondoren ba'zen ere-gure agertzeaz eta otoiitez babestera ta goraltzera. **"Agur, jaunak... agur terdi. Emen gire"**.

Neurritz gorakotzat jaso zuten Eduardo Pastor apaizak eta Zirarda Apezpikuak. Neurritz gorako egizale, euskaltzale, apaiz, langille... Eta guzti ori aitortzea, zor zioten benetan. **"Martiri gurutziltzatua"** esatea, falta zitzaien, eta ori ez zuten esan.

* * *

Galdera bat sortarazi zuten gure buru-biotzetan: **ZER-GAITIK?** Ain goragarri izaki, ain "santu" aitortu jendaurrean, eta nola utzi dute bi urtez? Meza-Berria eman zuenetik asi ta 1988'gn urtea bitartekoak aipatu zituzten. Eta 1988'tik 1990'ko Loraillaren 6'gna bitartekoan, zer?

Gorputzez il zen aurretik, apaizari dagozkion artzai-lanetarako illik zeukaten, eliz-lanetarako ilda. Gaztelarazko eleberri baten deitura da **"Muerte anunciada"**, eta arira dator emen, alde z aurretik adierazitako eriotza. **ZER-GAITIK?**

Agian, salatzaillerik izan ez ba'litz tartean... Bera diruzale izan ba'litz, gora igozale izan ba'litz... bigun eta losintxari izan ba'litz...

Emen eguzkipean aurkitu ez zituen egia ta zuzentasuna, benetan dizdiratsu ikustera ta gozatzerara, ar dezala Aita gutziz onak bere betiko zorionean. Ala bedi.

GAZTAÑAGA'tar JESUS'ek

BIZKAI'KO OLERKARIAK

Auxe dogu, Aita Onaindia'k, oraintzuengo argitaratu dauskun liburu ederraren izenburua.

Amazazpigarren gizaldiaren lelengoetan asi ta orain arte Bizkai'an izan doguzan olerkariak zeintzuk eta zelakoan izan direan eta abar azaltzen dauskuz, liburu onetan, bakotxari dagokion azalpena ta olerkien bat edo beste agertzen dauzala.

Euskaldunok beti izan dogu bertsu-zaletasuna ta aldi guztietan izan doguz neurtitzez idatzi izan dabena.

Idatzi onetan, olerkari-olerkariak bakarrik bank, bertszuz idatzi izan dabena era guztietakoak sartzen dauskuz gure karmeldar idazle argiak: Benetako olerkariak, erdi-olerkariak, bertszugilleak edo, bertszoz idatzien olermenik ez dabena, bertszulariak eta abar.

*

Olerkariak aitetuten dauzan ezkeru, liburu egokia goa izan zatekean benetako olerkariakaz bakarrik orni du izan ba'leu; baiña benetako olerkariakaz bakarrik atondu izan ba'leu, liburu mengalegia gendukean, aurki. Ondo egin dau, ba, olerkariak, olerkaritzakoak, bertszulariak eta bertszugilleak sartzea be. Txarto zein ondo bertszuz idatzi izan dabena guztiak agertzen dauz, ba, gure elertiak era guztietako idatzien bearrizana dau izan be-ta.

Bizkai'ko euskeraz bank orreaz beste euskera-gaizto lorrin orreaz idatzitako banaka bat bere agertzen dira liburu orretan. Orreik, gari-arloan ludoiak egiten dauan kaltea egin daroe euskera jatorraren artean.

Batzuk jarri ditu noz edo bein olerkien bat edo beste baiño egin ez dabena bere. Nik neuk olakoak ez daukadaz olerkaritzat eta olerkari lez eneukez aitatuko. Beneteko olerkaria bere bizi guztian izaten da olerkari eta beti egiten dauz olerkiak; ostantzean ezin azazkau izango leuke bere barruko olermenaren egoneziña.

*

Olerki-arloan aditua dogu gure karmeldarra ta guztieri ezarri dautsie zentzunezko eretxia. Liburuaren atonzailla besteren bat izan izan ba'litz, bear ba'da, beste

eretxi batzuk izan eukezan eta ba'daiteke norbaitzuen eretxikoa ez izatea be egin izan dauzan eretxi-emoteak; baiña zailla genduke Aita Onaindia lako olerki-eretxilaririk gure elerti-zalien artean aurkitutea.

Olerkariak ez direala, bertszulariak bere ba-dakazala diñot liburu eder orrek. Bertszularien artean bere ba-dira olerkariak: Bertszulari ta olerkari direanak. Bat aitatutearren, Enbeita'tar Kepa, Muxika'ko **Urretszindorra** baiño erkiñagorik ba-dabe olerkari ontzat gure aldameneko Errietan.

Or dogu, ba, beste liburu eder bat, Onaindia Abaren bear ederra, gure elerti-arloa ugarituteko eta ez edozelakoa izan be. Olerkariak izan dira, ba, Aberri menperatuak berbiztu ta adoretu izan dabena eta gurean bere egokia daiteke olerkarien lana lo-sorroan diarduenak iratzarri eta adoretu daitezana, oindiño asko dira, ba, gure artean, euskerea baztertu ta erdereaz gogoak lotuta diarduen atzerri-zaleak.

*

Olerkari onik ez daukagula, euskeraz, entzun izan neutsan, bein, euskaltzale bateri. Olakorik ez dau uste Aita Onaindia'k. Beste Erri batzuetakoen antzekoak edo obeagoak bere ba-doguzala baiño. Sarritan, bestien lanak ondo aztertu edo goznartu bagarik esan oi diren eretxiak.

Olerkien guna ondo ezagututeko olermen onaren jabe bere izan bear da, gero, eta Onaindia Aba bera bere olerkari ona dogun ezkeru, olermen-zentzun andikoa dogu, ba.

Olerki-zale ta eleder-zale euskaldun bakar batek bere eleuke izan bear, **Bizkai'ko Olerkariak** idatzi bikain au eskuratu bage.

Eta, zorionak, Aita Onaindia, adiskide euskal-langille nekagaitz orri, Euzko-Jaurlaritzak emon dautsun saria-rran, iñok irabazi izan ba'dau zuk zeuk ondo baiño obeto irabazita izan dozu-ta.

AURRE-APRAIZ'ek

AGIRRE'TAR JOSEBA MIRENA LENDAKARIA

(Napoleontxu, txokolategille, masoien 33n. maillako eta abar)

33n. MAILLA

Iruña'ra eraman ninduen gerratean eta Txapitela kalea igarotzean, Plaza del Castillo'ren ertzean, eskubi-aldera, arrituta eta zurtz eginda gelditu nintzan denda bateko erakustegiari begira. Aurremantal bat zegoen zuria eta aren inguruan konpas bat, beste iru-zoko bat eta itz auek erderaz:

"MASOIEN 33n. maillakoa dan Jose Antonio de Aguirre'rene amentala da au".

Bear ba'da, orduko iruñarrek sinistu ere egingo zuten orrelako argumento eta agiria agertu ezkeroz... Batzuek itsu-itsuan sinistu ere. Jose Antonio'ren izena aitatzean beti eantzi oi zioten onelako "atzizkiak": Napoleontxu eta "El Chocolatero".

"Napoleontxu". Agirre bera zalako gudarostearen buru eta, Lendakaria izan arren, frentera maiz joaten zalako bere gudariekin elkartzera, Otxandio'tik asi eta Artxanda'rarte, trintxera guztietan zear.

Ez egazkin eta ez antiaereo Hitler'en egazkiñen aurka burrukatzeko; fusil eskas batzuek eta zenbaitzutan muniziorik ere ez.

Modu artako eskasian, biotza ipiñi bear ordez eta gudarien biotzak berotzeko Lendakaria berbera urrertzen zan zanga-zuloetara eurokin solas-aldiak egitera. Lendakari gazteak, sua sortzen eban mutil gazte aien barrenean. Ez Mola eta ez Franco ez ziran era orretara inguratzen frenteko erretenetara.

TXOKOLATEGILLE?

Senidetartean txokolate-fabrika zutelako. Bere anai Juan Marik zeraman aurrera eta bertan sozioloji-



Eibar'en mitiña ematen 1933'an.

-kristauaren aurrerapenak ezarri zituen Jose Antonio'ren aolkuz.

Euskadi libre bat nai zuan gizarteko zuzentasunean eta euskaldunen arteko anaidetasun batean. Orregaitik zion ELA'ri alako maitasun berezi bat, ELA izango zala, uste bait zuen, euskalduna gizarte-arazoetan aurrera eramateko bide egokia: gizarte zuzenago eta jatorrago bat sortzeko.

Euskaldun Diputaduek 1935'garren aurtean Madrid'eko Lege-biltzarrean, aurrerapen batzuek eskatzen zituzten langilleriaren aide... Baña, ez zieten aitatzten ere utzi. Diputadu batek Leon XIII eta Pio XI, Aita Santuak aitatu zitun, eskubitarrek bait ziran nagusi. Aieta-ko batek onela esan omen zuan, Agirre berberak dio-


nez: "Geurea alboratzeko, Arta Santuen irakatsiak aitutzen ba'dira, gu Eleizatik aldendu egingo gara".

*

GETXO'KO ALKATE

Primo de Rivera'ren diktadura amaitzean, Udal-etxeetarako auteskundeak izan ziran eta Agirre'k irten zuan Getxo'ko alkate 1931'ko jorraillean. Bereala sortu zuan Alkateen arteko mogimentua Autonomiaren aide. Urte berean, Ekainaren 14'an, bildu ziran euskal alka-teak Estella'n ekintza orretarako.

Lege-gizona zan eta kristau zintzoa. "GAZTEDI KATOLIKUA"ren buru aukeratu zuten Bizkairako. Aldi aretan markiñar kanonigo gazte batek egiten zuan, lan Getxoko elizan, Alberto Onaindia jaunak. Orduan asi ziran euren arteko ar-emanak eta eriotzak ebagiko zitun; bitartean alkarren lagun zintzo izango ziran. Larunbate-ro biltzen omen ziran apaltzeko Irujo eta Onaindia Agirre'ren etxean, onen semeak dionez, zeruak eta lurrak jorrazteko. Bein onela esan omen zien: —Zuk, Manuel, kanonigo bear zenduke eta zuk, Alberto, politikari.



*Bere izena aldatuta
Panama'ko pasaportearekin.*

Bere liburuetan agertzen danez, Agirre beti Europara begira zegoen "Errien- Europa" noiz lortuko zanen itxaropenean. "Historia Contemporánea de Europa", bere irakaskintzaren gaia Columbia'ko Unibersidadean. Ondorengoentzat utzitako liburuak, berriz, auek dira: "Entre la Libertad y la Revolución", "De Gernika a Nueva York pasando por Berlin" (bere egunkaria liburu biurtua) eta "Cinco Conferencias" eta Euskalerriko Historia amaitzeke gelditua.

*

MOLA ETA 20.000 TXAPELGORRI NAPARROAN

Estella'ko Estatutoaren billa gebiltzala, Iruñan Mola militarra jeiki zan Errepublikaren aurka, 20.000 napar karlista berekin zituela, Uztailaren emeretzian, 1936'garren urtean. Egun artan zan Beasain'go Batzokiaren asiera



*Jose Antonio Aguirre
Euzkadiko Lenengo Lendakaria.*

ABERRIA



Otxandio'ko frentean gudariekin.

eta Jose Antonio mitiña ematekoa zan arratsaldez; bai itxa ropenezko itzaldia erritarren biotzak suspertu eta ña, ez zan etorri eta inaugurazioa egiteko gelditu zan, jasotzeko... arazo larriak sortu bait ziran eta gerra negargarri baten asiera.

Andik urte eta bi illebetera, Urrillaren 7'an, 1937, Gernika'ko Estatutoa onartua izan zan eta Jaurlaritzaren lenengo Lendakaria Jose Antonio Agirre aukeratu zuten: alderdi guztiek artu zuten parte. Orduan izan genduzen Euzkadiko Gudarostea, Euzkadiko Dirua eta Euzkadiko pasaporteak. Noiz izango ote ditugu berriro?

Bilbo inguruan egin zuten "burnizko esia" ere baiña guztia izan zan alperrik. Agirre frenterik frente ibillia zan gudariei animoa ematen; auek, ordea, egazkiñen aurka, iskillu narratx batzuek besterik ez zuten eskuartean. Gernika, Durango, Amorebieta eta abar erre ondoren Bilbo artu eta gudarostea erbestera. Baita Lendakaria eta bere Jaurlaritza ere. Erbesteratuen bide penagarria artu bear...

GABONETAKO MEZUAK

Jose Antonio'ren Gabonetako Mezuaren zai egon oi zan Euskadi osoa. Urteero eman oi zuan bgre itxa-



Paris-inguruan 1945. Ifar-Ameriketako gudariak gazte euskaldunak gudarako prestatzen ari ziren garaikoa.



Companys eta Irujo lagun dituela Frances Macia katalan abertzalearen omenez. Otsaila, 1939.

Doistarren erasoia Europa guztian zear. Endaia'raiño eldu ziran. Bien bitartean, Jose Antonio Europa orretan igesi batetik bestera Berlin'eraíño. An izena aldatu, Jose Andres Alvarez Lastra Jose Antonio Aguirre Leku-be'ren ordeaz, eta Panama'ko pasaportearekin Ameriketara iges.

Iparameriketatik asi eta Egoalderaiño, Erririk-erri, ibilli zan euskaldun-mezua zabaltzen, Diasporako Euskalerritari batasun apur bat eramaten...

Europa'ko guda amaituta, Paris'era berriro, bere Erriaren ingurura... Beti mezulari eriotzararte.

JAIOTZA ETA ERIOTZA

Bilbaon jaio zan Martxoaren 6'ean 1904'garren urtean eta Paris'eko Passy auzoan il zitzaiGUN, biotzekoak emanda, Martxoaren 22'an 1960'garren urtean. Doniane Loitzun'era ekarri zuten, eta 28'aren eguerdi-eguerdian, Jose Antonio'ren zerraldo gaiñean, ziñ egin zuan Leizaola jaunak, Euzkadi'ko Bigarren Lendakari bezala.



1942. Bogota'ra eldu zanean Ego-Ameriketan Euzkadi'ren mezua zabaltzera.

ABERRIA



Lerida'ko frentean 142 Brigada Mixta Vasco-Pirenaika'koekin.



*Paris'ko Passy auzoan illa
1960'garren Martxoa 22.*

*Donibane Loitzun 'en eortzia. Bere gorpuren gainean zin
egin zuan Leizaola Lendakari berriak eguerdiko 12'etan,
Martxoak 28. 1960.*



NIRE BORDA

Ametsik aundienak
Bordan sortuten ziran
goiz arratsetan;
kutuna zan etxea
zar, baiña maitegarri
iruntz zidarretan.

UDABARRIA BORDAN

Egunsentia dator
ta izarrak itzaltzen
ortzi urdiñean;
egunezko izarra
menditik agiri da
itz biribillean.

Bakearen ederra
aidean, gozo, dabil
urdin gardenetan;
erleak ezta lez
gogoak xurgatu deust
arnasa leunetan.

Arruabarrenean
azerien zaratak
illuntasunean;
egaztiak dardaraz
bildurrezko pilloan
eriotz aurrean.

Txakurrak salatu dauz
azerien oin otsak
gabaren gaupean;
amaika jausi dira
triskantzarik aundiena
pizti odolean.

Azeri zuloa negarrez
samin uluz ospatuz
illobiratzea;
gero, zin egin dabe
eiztarien aurka
umeak aztea.

Solo, zelai, mendiak
lo gozoetan datza;
gabeko otz kirriz;
ardi eta bildotsak

arran ots banaketan
loaren il-biziz.

Borda muño gaiñean
izadira begira
gabaren gonbitez;
auzoetan lo dagoz
lapurra izan ezik
baratzen atxurrez.

Egunsentia eder...
izarren dizdizera,
begien gozamen;
zugatz lora ta iturri
bizitza biur jataz
e raien zoramen.

UDA BORDAN

Udaren biotzean
goian suzko urrea...
gizonen ametsa;
lur guztia emaro
aurdun amaren antzo
opaka bizitza.

Artzaiñora surtu da.
Ardia bee ezkortan,
bildotsak saltari;
ateak zabalkeran
izarrak dirudie
zelaian dirdari.

Jan eta jan dabilzaz
aldapeko zelaian
ezin asperturik;
ain gozoa bedarra
eguzkiaren urrez
orlegiz beterik.

UDAGOIENA BORDAN

Ego aizea dabil
Bordako atarian
euliaz dantzari;
zubitik gora datoz

pizti aspergarriak
aidean ziztari.

Mendi bizkarrak iger...
zelaietan legorra...
aurtengo zigorra;
arri artean legez
ardi eta bildotsak
ulea kiskorra.

Ardiak tontorrean...
mendi magalak sutan
legorraren garrez...
artzain ta artzaiñorak,
ardiei begiratuaz,
biotza negarrez.

NEGUA BORDAN

Udako gau urdiña
ikatz baltz biurtu da
izen gogorrean;
neguaren agiñak
ikatzarri iduri
aupaka ortzean.

Trumoia eta tximistak
ete bage jarduki
lurra dardaratuaz;
zugatzpean gizona
oiñeztarriak ilda
azurrak otzituaz.

Edurra mara mara,
zelai ta mendietan...
itxaso zuria;
ardi-bildotsak beka
akerra zarataka,
ai! Borda maitea!

Edurraren zuria
eguzkiak urretu
lurmen agertuaz;
ardiak ara doaz
kantari ta dardari
pozaren kilimaz.

BORDA ZURIA

EZKONTZ GOIZA

Ametsa begietan
dizdizka eriola,
baietz esan eban;
biotza maitasunez
eguzki urrea lez
aurkituz Eleizan.

Zoria asmau eban
emazte barriagaz
nortasun barrian;
Eleiz orma guztiak
zorionak emoten
maitasun ez-tian.

Iñoiz ez eban artu
begikera ain samurrik
maitasun iduri;
egizko biotza zan
lagundu nai eutsana
beti egiari.

Aita-amak itzi ditu
biotza ezarri dau
emazte barrian;
zer dau ezkontz goiz arek
zorionak, agurrak,
lagunen minean...

LAGUNTZA

Egunik egunera
laguntasun utsa da

egia berbera;
onaren iturria
uste onaren bidez
eldu da etxera.

Alkarrekin soloan
bearrak ariñago
urrezko pozagaz;
etxean janariak
lau eskuz gerturik
gozo maitasunaz.

OÑORDEA

Len ondorea dator
izaki biren muiña
basetxe maitera;
biak alkar maitatzen,
itxaropen gozoa
etorkizunera.

Udabarri eguna,
maitz orri artean
iatorke semea;
izar bi ditu begiak,
mutur biribil artan
dana da lorea.

Amets barri bat dabe,
aita ama lilluraz
umeak zoratzen;
etxe guztia dager
zorakortasunetan
dizdizak zabaltzen.

Seaska on barri,
amets aundien kabi
izarra dirudi;
larrosarik maitena
oial zuri artean,
an bait da agiri.

Ama onek darabil
bere odol bizia
seaskan kulunka;
umeak irri dagi
aitaren ta amaren
pozak eraginda.

Gosea sentitzen dau
ta aupa, pozez, doa
amaren kolkora;
zerua aurkitu dau
amaren ugatzean.
Beraren naitara.

Gero poza dario
amaren ugatzetik
aitaren besora;
zeru goiko izarrak
argitu dau etxea
ortzetik leiora.

Oiñez ikasten doa
taka taka, zelaira
eguzki isletan;
barrea ta urrea
berez agertu dira
ume begietan.

PAULIN

EUSKERA GARBIA, ULERKOI ETA BIKANA

Noz edo noz, sarritan ezpada be, Euzkal Urrutikuskiñaren aurrean jesartzen naz eta, zori txarrez on sarrigo egiten ez ba dot, bertan egiten dan euzkerea, askotan ez dodalako entzuten ez ulertzen izaten da.

Baña, dana dala, joan zan Loraila'ren 28gnean. eta Euzkal Urrut-ikuskiña'ren aurrean nengoala, bost edo sei gizon-emakume agertu ziran Erri-Batasuna'ren arazo batzuetaz mintzatzan eta euren arteko bat, PATXI ZABALETA, LEITZA'ko seme bikaña eta euzkeldun txalogarria izan zan. Ainbat itaun maltzur eta azpikeriz bete-beteak egin ba jakozan be, bere buru argiz bete-betea eta bere euzkera eder, errikoi, garbi eta bikaña erabilli eta euren artean egon zan aide andi bat erakutsiz, danen gan-ganetik urten zan.

Eneban asti andirik, beste zeregin batzuk nebazan eskuartean sei terdietarako, baña EUZKO ARAUDI edo estatutoataz egin jakozan itaunen erantzunak, bikañak baño goragoko eretxiak merezi eta irabazi ebezan.

*

Euzkera argi, garbi eta ederrean esan eban Patxi'k: "ERRI-BATASUNAN ALKARTUTA EDO MOLTZOTUTA, BA DAGOZ TALDE BATZUK ETA, EUREN ARTEAN NI SARTURIK NAGOEN TALDEA, EUZKAL IRASKUN ETA ARAUDIETAN SARTZEKO ALDEKOEN ARTEKO GARENAK. TALDE AU, ZUEK USTE DOZUEN BAN() ANDIAGOA DA ETA GUK BERO-BERO TXALOTEN BA DOGUZ, ORAIÑ ARTE ONDO EGIN DIREN GAUZA GUZTIAK, EZ DOGU ZERTAZ IXILIK EGON TXARTO EGIN DIRENEN AURREAN. GU, POLITIKA BAIKOR ETA ERAGILLEA EGITEKOEN ARTEKOAK GARA ETA ORRETAN EKITEKO, GOGORIK SENDOENA DOGU. ZIUR EGON ZEITEKEZE, GUK, EUZKAL ARAUDIETAN SARTZEN GARENEAN, IÑOREN AURKA EGIN BARIK, GURE "EUZKAL-ERRI EDO EUZKADI'REN ALDE, BETE-BETEAN, EHINGO DOGULA".

Irakurleak ikusten dozuen lez, berba ederrak Patxi'k esandakoak, baña, Patxi dala ta, beste zerbaite esango dautzuet.

Aldi luzea joan da, baña gomutatzen naz ondiño, bera Iruña'ko Udalean, JAKINTZA (Kultura) (?) sallan buru izan zanean, berak egindako "Ian eder" bategaz. Naparra ERRIBERA'ko erritxu baten emoten genduzen ainbat udaro, gure illobak txiki-txikiak ziranean. Ondo baño obeto emoten nebazan nik ude areik, bertako napar anaiekaz bat egiñik. Ez dira ez, aiztutekoak guk an emondako udeak.

IGANDE baten, Meza'tik urtetean, adizkide bat urreratu jatan, bere alboan neska bat etorrela. Neska arek, danok alkar ezagutu ondoren, Bilbo'n irakasle-andereño lez egoala agertu eustan eta Iruña'ko Udalea'n Napar irakasle batzuk bear zirela jakin ondoren, bertara joan eta Patxi'gaz berba aldi bat izan ebala esan eustan.

Patxi'k itaundu ei eutzon: Zu naparra zara? Eta berak erantzun: Bai jauna. Patxi'k barriz: Euzkalduna al zera? Ez jauna, Naparra'ko erribera'n ez da orain euzkeraz egiten. Eta Patxi'k, orduan: Ba, euzkeraz ikasi bear dozu eta ikasten dozunean, etorri nigana barriz, ni emen banago, orduntxe izendatuko zaitut Iruña'ko irakasle.

Erri'tar on bi lez banatu ziren.

Bere erritxu'an, nezkeari norbaitek esan eutson ni izango nintzala beretzat euzkera arloan laguntzeko onenatariko bat; nigana etorri zan, laguntza eske. Nire berbea emon neutson, lan orretan nire laguntzarik beroena izango ebala ezanez eta beste barik, bakoitzak bere bidetik jo genduan.

Ondorengo egun baten, neskea, poz pozik, urreratu jatan eta esan eustan: Kepa, lengo egun baten, Patxi'ren deia izan neban eta auxe esan eustan: ementxe, Iruñan bertan, izango dozu euzkeraz ikasteko aldi edo garaia eta zure berbea emoten ba daustazu, orretan aleginduko zarala zure gogorik andi-enagaz, datorren Urrillan asiko dogun ikas-urteko lenengo egunetik izango zara Iruña'ko irakasleatariko bat. Ez dago zerten ezer esanik neska arek erakusten eban poztazuna...

Euzko abertzale ta euzkera zale zintzo direnak, nire ustez, ba dabe ondiño non eta nor eredutzat artu. Patxi Zabaleta data olako bat esango neuke ta ziur nago, nire uste orretan, ez dagola iñolako eztabaidetan sartu bearrik.

Dakitenagaitik, Koldo Mitxeleta izan zan **euskara batua** ren bultzagille gogorrenatariko bat, baña euzkalkiak landu bear direla be esan eban eta ortaz ez da ezertxu be ikusten edo asmatzen, gure araudietan eta ez ta be, euretan sarturik dagozen **agintarijakintzuen** artean. Orain direla urte batzuk, Leioa'ko Ikastetxe Nagusian alkartu ziren izkuntzalari gain-gañeko batzuk eta an be orixe esan zan: **IZKUNTZETAN DAGOEN ABERASTASUNIK ANDIENA, EUZKALKIETAN DAGO-LA ETA ONEXEK ALBO BATERA ITZI ETA LANTZEN EZ BA'DIRA, IZKUNTZAK, LENAGO EDO GEROTXUAGO, IL EGINGO DIRALA.**

Ikusten dan lez, Izkuntzalari ospetsuenak ba diño, izkuntza bakotzak ber-bereko sustraietatik artu bear daue-la esne eta izerdia, zertan dabilz gure euzkal-izkuntzalariak eta eurei ainbat erriarenak diren diru moltzoak

emoten dautzoezenak? Zenbat Bizkai'ko ez diren berbak ikusten doguz, Bizkai'ko bide bazterretan eta gure errien sarreratan! Lotzagarria da gure inguruetan jazotzen dana, ba, egi egia esan, askok ez dauz ulertzen gure Erri'ko bide ta kaleetan idazten diren ainbat burueuskeradun askok, ez dakit nondik burura ekarri eta ezartzen dabezen basakeriok.

Euzkadi'ko Uri, bide, baso eta mendietatik gabiltzen arteko askok dakigu, gure erri maite onetan, Euzkal Alderdi Abertzale guztietan ainbat Aberri maitale zintzo dagola eta asmo oneko diren guzti-guztiak ondo alkaturik, kirtenak eta tripa-zaiak albo batera itxiz, asti edo aldi barruan ibilliko giñakela, Euzkerea bizirik ataratzeko; baña, bildur naz, oraingo aro edo ingurunean jarraitzen ba dogu, ez ete jakun ilgo ain gurea dan Euzkera zar au.

ITXARTU ZAIZ EUZKOTARRA, AUPA EUZKAL-DUN GUZTIOK..., iñoen antziñako abesti zar batek eta, on entzun eta egin gura ez ba'dogu, gure Euzkerea illunetan sartu eta il egingo jaku; bestera jokutzen ba'dogu, au da, antziñako abesti orrek diño lez, Euzkerea-ren etorkizuna zizartekoa eta disdirakorra izango da.

KEPA

BURUAK

Alboan agertzen diran zerrendako liburuak salgai dira **EUSKERAZALEAK** en idazkaritzan.

Colon de Larreátegui, 14 - 2.^o
Teléfono 423 53 22 **BILBAO -1**

Los libros at lado indicados pueden adquirirlas en las oficinas de

Colon de Larreátegui, 14 - 2.^o
Teléfono 423 53 22 **BILBAO-1**

Nora Zoaz.....	600	laurleko
Giza Soiña.....	600	
Iniciación al Euskera	600	
Irakurgai errezeptak I.....	100	
(Zenbat Urte)		
Irakurgai errezeptak II.....	200	
(David Copperfield)		
Aurtxoa II.....	100	
Eginkizunak I.....	100	”
Eginkizunak II.....	100	
Eginkizunak III.....	100	
Euskal Irakasbide laburra.....	600	
(Gramátika X. Peña)		
Diccionario Ikas.....	700	
Ipuiñak.....	700	
Ipuiñak.....	800	

LATERRI ABERATSEAN, GOSEA

Norbaitek esan leike, au idatzi dauanak ez dauka burua ondo. Izan leiteke, baiña ez dot uste.

Jarraitu daigun zerbait aztertuten jakiteko zer jazoten dan emen bezela, Ameriketan eta Ekialdeko laterri geienetan.

Urte oneitan, ala-ta-be, gabonetatik onantz, aspertuta nago entzuten ta ikusten, zer jazo ete dan Argentina'n.

Egunero ango istillu, zalaparta, gogorkeri ta lapurretak ikusita, niretzat esango neuke, GUZURRAK dirala.

Ain zoritxarrean egoteko zer jazo ete dan, edo zergaitik dan jakin gura neuke.

LATERRI ABERATSA

Ludi onetan laterri gitxi egongo dira ainbeste ondusun edo mozkin eukiko dabenak.

Argentina'k 2.300.000 km² daukoz legorrekoak, ta beste ainbeste itxasaldeko lurretan edo UGARTEETAN; guztira 4.000.000 km² inguru.

Bertako itxasaldeak oso luzeak dira 3.000 km luzean.

Bestaldera, Argentina'n bizi dira 27.000.000 bizilagun, gitxi gorabera, km² bakoitzean 5 notin edo persona.

Baiña, Buenos Aires'en 16.000.000 bizilagun bertan, metropoli aundian bizi.

Zergaitik ori? Mende onen asieran bakarrik eukazan 4.000.000 jente, ta orain LAU bider geiago. Zer jazo da ba?

PERON'EN SASOIAK

Peron'en sasoiak jentetza asi zan URIBURURA joaten; an bizimodu obeagoa, errezagoa eukiko ebelako asmoan.

Lurgintzako bearrak gogorrak diralako, egun osoan, goiztik-gabera lana gogor egin bear dalako, ta askotan gaubean be bai.

Ta gure jentea ASPERTU edo Nekatu egiten da ainbeste ILDURA egiten.

Onetaz ganera; Peron'ek bere Argentina'ko URIBURUA izan daitela ludiko uri aundiena, ederrena, samurrena, bizitzeko zoragarria nai eban.

Asmau ta egiten asi zan.

Orduan beragaz zelan egoan jente guztia TXOTXOTUTA, jentea asi zan lurgintza lekuak basomortu bat lez itxi ta URIRA biurtzen.

Lurrak gelditu ziran LANGILLE barik.

Ta gure Peron'ek JASO EBASAN OLA edo fabrikak ugari, jenteak jateko ta ondo bizitzeko lana euki dagian.

Urte batzuk oso onak edo eztsutsuak euki ebazan gure laterri ederrak. Egoera onenean egon zan.

Europa'ko gudea zan. Ta guda orduan ta ostean be bai, era ona euki eben ango okela, gari, urun, esne ta obari guztiak ondo baiño obeto saltzeko.

Ugaritasun on laister jausi zan, guda OSTEAN, Europa aurkitzen triskatuta, apurtuta, etxeak, olak, bideak ta beartasunak eroan eban jentea lanera, lana gogor egiteko asmora, onelan bakarrik euren burua goratuko ebela-ta.

Guda ostea gogorra zan bai garaipena egin ebenentzat ta bai galdu ebenentzat.

Urte gitxi barru irabazi ebenak ta galdu ebenak arin jaso eben bakoitza bere burua, lanean OITUTA egon ziralako.

ONDASUNAK ZELAKOAK

Ango lur zabal eta luzeetan, lenago artzen ziran, ta nik uste dot orain be bai, MOZKIN edo irabazi oneik.

Ikusi daigun ze MOTETAKOAK diran:

50.000.000 beiki; 42.000.000 ardiki, 5.000.000 auntz; 4.500.000 txarri; 3.700.000 zaldi; ondiño be geiago, baiña ez luzetzarren, ez noa ipinten geiago.

Bertako lur zabal eta luzeetan artzen dabez 2.700.000 Tm. gari-urun, lan asko egin barik; bertako lurrak "HUMUS" garbi-garbiak diralako, euskeraz esan da LUR-USTEL edo LUR-BALTZ diralako; ezelako ongarrri edo zimaurre barik nai daben UZTA guztiak artu leikezelako, urte askotan.

800.000 Tm. olio; 2.000.000.000 litro ardao; 30.000 Tn. tabako.

Lur azpiko ondasunak ere ez dira txantxetakoak, ez gitxiagorik Ango MEATZAK dira:

Zink 80.000 Tm.; 250.000 Tm. burdin; 55.000 Tm. berun ta 33.000 Tm. Uranio.

ARAZOAK

Bere Itsasaldeak luzeak dira, gauza bat aipatutako dot bakarrik Españera etorten dan **LEBATZ IZOZTUA** erdia, bertatik ta ta **TXILETIK** ekarten dogu, edo angoa jaten dogu, ain gozoa ta ederra.

Zeaztasun edo **ZERZELADA** oneik iztegi batetik artuta dagoz.

ORAINGO ZERZELADAK

Niretzat, interesgarriagoak dira orain emen dakardazan barriak edo barrikeriak. Zergaitik? Alkarizketan artuta dakardazan barriak diralako.

Nere senditik euki dodaz Argentina'n osaba bat eta anai bat.

Osaba Argentina'ra joan zan mende onetako lenengo urteetan ta an egon zan 21 urte.

1921'an andik etorri zan, bere Emaztea ta lau seme-alabakaz.

Lenego etorri zan egunetan neure etxean egon zan, bere jaiotetxea zalako.

Ni orduan txikitxua nintzan. Ez neban jasoten, nire osabak esaten eban gauza asko baiña batzuk bai. Geroago **AUSNARTU** dodaz batzuk.

Bere lenengo asierak oso txiroak izan ei ziran, nik esaten dot edozeiñen asierak eta edonun, garratzak edo gogorak izaten dirala.

Ori ba-dakit oar-ikasiz.

Osaba be, goian zerua ta bean lurragaz aurkitzen zan lenengotan beste modu baten esanda: **NARRU-GORRIAN** aurkitzen zan.

Ta bere bisimodua aurrera aterateko, esan eban beretzat: Emen ez dago beste biderik, zintzo jokatzeari baiño.

Lenengo urteetan amar inguru bei erosi ta aren esnea batu ta saldu.

Urterik urtera, bei taldeak geituten asi zan, ta oneian andik urte batzuetara **ELDU EIZAN 200** bei eukitera.

Onela irabazi ona ateraten ei eban.

Beretzat bizimodua samurtzen asi zanean, eskondu zan ta bere emaztea be berelako langillea izanez, maizter gogortu ei ziran, bai bei taldean ta bai diruz.

Orduan bildur barik jokatzen asi ziran. Kementsuak ziralako, aurrerantzean danak ondo urten eutsen.

Baiña egunero lana gogor eginda. Beien esnea batzea, izaten ei zan ordurik gogorrena ta neketsuena, nai ta euria izan, edo edurra edo otza, an lana egin bear.

Diru-bilketa polita egin ebenean, asmatu eben onantz etortea.

1921'ean ona eldu ziran.

Andik ekarriko dirutxuakin erosi eban, Eskoriatza-ko jauregi etxe politena ta 1.500 m' lur etxe inguruan.

Geroago jaso eban ola bat edo fabrika bat, berak eta semeak lana egiteko ta beste langillei lana emoteko. Urte gitxi barru ola orretara berrogei langille inguru joaten ziran, euren eguneroko ogia irabazteko.

Orain, diñot: Gizon orrek 21 urtean ainbeste **OBA-RI** aterata, zergaitik, oingo gizonak ez dabe dirurik edo gozamen edo **ERRENTA** ateraten?

Bakoitzak erantzun dagiola itaun oneri, nai daben bezela.

NIRE ANAIA

Osabaren atzetik, 18 urte geroago, aren barri onak entzunda, nire irugarren anaiak arantz joateko **ASMOA** artu eban naita bere aitak esan: Ez zaitetz ara joan, an be txakurrak ortosik ibilliko dira-ta.

Baiña, bere **ASMO** sendoa iñok ez eutsen kendu.

Egun baten 1918'garren urtean, or doaz aita ta semea Bilbo'rantz itsas ontzia artzen, Argentina'rantz joateko.

Or doa **Kukuzuloko** mutil kaskote ederra, gertaldi billa.

Onen **ASIERA** be oso gogorra izan ei izan, beste guztiena lez.

Baiña azkenean, jaso ei eban bere **BURUA** zelan edo alan, 20 urte ingururako, jauntxo bat egin da egoan.

Eskondu zan italiana bategaz, andik aurrera **AIZEA ALDE** zala joian dana.

Emaztea be gogorra lanean, biak alkarren leian jota kee egiten eben.

Etxetik urten da 33' garren urtean barriro biurte zan bere jaiote etxea ikusten, baiña orain an ez ziran bizi bere anai ta lobak. Beste leku zoragarriagoan bizi ziran.

Sei illabete egin ebazan sinide artean, seitik **IRU** illabe egon zan nigaz. Zergaitik? Udean **LURGIÑAK** ez daukielako denborarik geldi ta barriketan egoteko. Euren **UZTEA** orduan batu bear dalako.

Nik oporrak neukazan ta pozik etorten zan nigana.

Ondartzan **BUSTI**-aldi bat artuta **AREN**-ganean **Argentiña**'ko goraberak esaten genduzan.

Orduan jakin neban zelako aberatsa zan Argentina ta geiago esaten eban: SEKULA EZIN LEIKELA ARGENTINA'K PORROTIK EGIN.

Ori esaten eban BEIN ta BERRIZ.

Gaur, ikusiko baleu, zer esango ete leuke?

Nire ustez, gosea Argentina'n, ezin lei izan edo eurak gura dabelako, edo ALPER OSOAK diralako baiño.

Oraintsuko ZARRAPARRAK ikusita, nik uste dot il egingo zala.

Edo bestela esan: LURRA, IRUNTZI NAIZU, au ez da nire Argentina-ta.

Emen ez dago guzurrik. Gizon bi oneik, billosik joan ziran AMERIKAK EGITEN ta Amerikak egin zituen.

Zergaituk ain TXIKITXUA egin da Amerika?

Zergaitik dago ainbeste TXIROTASUN, ezbear, GOSE, UGARITASUNA dagon tokian?

ONDIÑO GEIAGO

Bizkaiko erritxo baten, zuzen esanda, Arteaga'ko Gautegiz'en, egon naz 23 urtean, ta ganera oso pozik egon-be, agindariak artezak eta zuzenak ziralako eta lagun onak.

Emengo guda ta guda-ostea oso gogorra izan zan jente askontzako ala-ta-be batzuk abertzaleak ziralako, beste batzuk gorriak, ta besteak euren aldeko IPINIOA ez eukelako.

Bizkaiko guda amaieran asko ta asko, ALOE egin bearrean egon ziran.

Bizkaitik lenego iges-aldia izan zan Burdeos ingurura, Jacinto Urberuaga ta bere laguna Josebak.

Urte pare baten egon ziran lanean Burdeos inguruko basoetan baiña, ara be, eldu zan Europa'ko gudea, `a aide egin bear.

Itxasontzi baten joan ziran Venezuela'ra.

Jakiña, olako zori txar edo ateka baten, zer esanik ez dago, narrugorrian joan ziran Venezuela'ra.

Ara eldu ziranean, zerua goian ta lurra bean aurkitzen ziran.

Eskean ibilli batik, lanean oituratutako gizonak, ezin egon Ian batik.

Jazinto abereiltzailea zan ta bestea kondulari.

Dirurik ezin'k maillegu bat lortu, ta asi ziran: Abe-reak erosi, Venezuela'ko zelaietan ta gero saldu arategietan.

Onela asi ziran euren bizimodua ateraten.

Amabi urte geroago, barriro biurtu ziran eurak maiten eben errira, GAUTEGIZ'ko Arteaga'ra.

Baiña zelan uste dozue eldu zirala? NEGARREZ ez, alai ta barrezka, dirutxuakin.

1953 Jacinto'k agindu eban beretzat, txaleta edo Jauregi etxe bat jasoteko.

Egia esanda, len ta orain be bai, Arteaga'ko txaleterik ederrena da, zalantzarik gabe.

Bere emazte ta lau seme-alabakaz etorri zan sendia 1954'an.

Ain urte gitxitan, ainbeste mozkin edo onura egiteko lana asko ta ondo egin bear. Ba on olantxe da.

Argitasun edo zeaztasun bat ipiñiko dot jakiteko, zelan egiten eben lana. Gabonetan saltzen zan ERDIA, DUAN emoten eben, bezeroak eskuratuteko.

Ez egidazue esan, olako gizonak, amabi urtean ainbeste irabazi eben TOM on gaur egun, gosez dagoala edo ERA txarrean aurkitzen dala.

Nire uztez, lanik ez dabe egin gura jente orreik.

Ara ez dogu joan bear, olako jentea ikusteko, gure inguruan be, ba dagoz, gosez moduan eskatu ta droga edo ardaotan eralgiten dabenak iraziteko diru ORI.

Aberats-tokian, gosedun asko. Bakoitzak atara dagiala ondorengoa.

Bilbo'n, 1990'ko Jorailaren 26'an.

ETXEBERRI'tar ISIDOR



Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA